



E ERANSKINA

Irakasleen ordezkogaien zerrendako kideak

E.1.- Lurralde historikoa eta lanaldi-mota aldatzeko eskabide-epea

2019-2020 ikasturterako lanpostuak hautatzeko prozesu telematikoan, **eta iraileko prozesurako, non lanpostuen esleipen automatizatua egingo da**, kontuan hartuko diren lurralde historikoa eta lanaldi-mota aldatzeko eskabidea egiteko epea 2019ko uztailaren 1tik 5ra egongo da zabalik (egun biak barne).

Eskabidea aurkezteko eredia eta aldaketaren eraginak Langileak Kudeatzeko zuzendariak zehaztuko ditu ebazpen baten bidez.

E.2.- Finkatzeko eskubidea duten lagunen zerrenda

2019-2020 ikasturterako finkatzeko eskubidea duten lagunen ehuneko zeroan ezarri da.

E.3.- Lanpostua hautatzeko fasean derrigorrez parte hartzeko puntuazio-muga

2019ko abuztuaren 9eko 14:00etan emango da argitara zein puntutatik behera izango den aukerakoa —ez derrigorrezkoa— lanpostua hautatzeko fasean parte hartzea. Puntuazio hori Hezkuntza Sailaren web-orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>), eta irakaslegunean argitaratuko da.

E.4.- Prozesuan eskainitako lanpostuen zerrenda

Esleituko diren lanpostuen zerrenda 2019ko abuztuaren 16ko 14:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>), eta irakaslegunean.

Era berean, aditzera emango da zein lanpostuk dituen ezaugarri bereziak.

E.5.- Parte hartzeko eskabidea betetzeko epea

Irakaslegunean dagoen eskabide elektronikoa betetzeko epea 2019ko abuztuaren 19ko 09:00etan ireki, eta 2019ko abuztuaren 20eko 15:00etan itxiko da.

E.6.- Esleipenaren behin-behineko ebazpena

Esleipenaren behin-behineko ebazpena 2019ko abuztuaren 23ko 14:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>), eta irakaslegunean.

E.7.- Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea

Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea 2019ko abuztuaren 23ko 14:00etatik 2019ko abuztuaren 26ko 14:00etara egongo da zabalik.

Erreklamazioa irakaslegunean eskuragarri dagoen ikasturte hasierako aplikazio informatikoan agertzen den loturaren bidez aurkeztu beharko da.



E.8.- Esleipenaren behin betiko ebazpena

Esleipenaren behin betiko ebazpena 2019ko abuztuaren 29eko 14:00etan emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/>), eta irakaslegunean.

E.9.- Ordezkapenak esleitzea

Ez da esleipen presentzialetako saiork egongo. Eleipen-prozesu telematikoa amaitu ondoren, esleipen gehiagorik egin behar bada, lanpostu horiek esleipen automatizatuaren bitartez emango dira, hurrengo egutegiaren arabera:

E.9.1.- Lanpostua hautatzeko fasean derrigorrez parte hartzeko puntuazio-muga

2019ko abuztuaren 27ko 14:00etan emango da argitara zein puntutatik behera izango den aukerakoa —ez derrigorrezkoa— lanpostua hautatzeko fasean parte hartzea. Puntuazio hori Hezkuntza Sailaren web-orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/>), eta irakaslegunean argitaratuko da.

E.9.2.- Prozesuan eskainitako lanpostuen zerrenda

Esleituko diren lanpostuen zerrenda 2019ko irailaren 3an 18:00etatik aurrera emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/>), eta irakaslegunean.

E.9.3.- Parte hartzeko eskabidea betetzeko epea

Irakaslegunean dagoen eskabide elektronikoa betetzeko epea 2019ko irailaren 3ko 18:00etan ireki, eta 2019ko irailaren 4ko 18:00etan itxiko da.

E.9.4.- Esleipenaren behin betiko ebazpena

Esleipenaren behin betiko ebazpena 2019ko irailaren 5ko 18:00etatik aurrera emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/>), eta irakaslegunean.

E.9.5. Esleitutako lanpostuan lanean hasi

Hautatutako pertsonak esleitutako lanpostuetan hasiko dira 2019ko irailaren 9an.